

Biztanleen udal-errolan helbidea aldatzea - Informazio orokorra

- **Zertarako**
Biztanleen udal-errolan helbidea aldatzeko eskabidea

- **Ekarri behar diren agiriak (tramitazio presentziala):**
 - ▶ **Jabetza-eskritura edo indarrean dagoen alokairu-kontratua.** Alokairu-kontratua indarrean ez balego, ordaindutako azken alokairuaren ordainketa-egiaztagiria ekarri beharko da. Jatorrizko dokumentuak eta fotokopiak.

 - ▶ **Joango diren etxebizitzan jadanik erroldaturiko pertsonak badaude:** jabearen edo maizterraren baimen-agiria (*Inprimakia udaletxean jaso*) eta haren NAN edo Atzerritar Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia aurkeztu beharko da.

 - ▶ **Helbide-aldaketaren eskaera ez badu interesdunak aurkezten:**
 - Eskabidea aurkezten duenaren NAN, indarrean dagoen pasaportearen edo horren ordezkoko nortasun-agiria edo, hala badagokio, egoitza-baimena (jatorrizkoa)
 - Interesdunaren NAN edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakia (fotokopia)

Unitate arduradunak eskubidea du beste dokumentu osagarriren bat eskatzeko, izapidea behar bezala bete ahal izateko.

▪ **Lege-Arautegia**

Urtarrilaren 10eko 4/1996 Legea, apirilaren 2ko 7/1985 Legea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen) aldatzen duena, Udal Erroldari dagokion atalean.

Abenduaren 20ko 2612/1996 Dekretua, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Toki Erakundearen Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamendua aldatzen duena.

▪ **Oharrak**

Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrak:

- Behin betiko egoitza-baimenik ez baduzu, bi urtean behin berritu beharko duzu Erroldako inskripzioa

- Horrela ez egitea inskripzioa iraungitzat jotzeko arrazoia izango da (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16.1 artikulua, 2. paragrafoa)